# Emakumeen ernal-egunak jakiteko bide berri bat

*Bular-eusleau (sostenean) ezkutatuta dagon konputadora tiki bateri esker, ernal-egunetan sukarra igotzen danean, argi gorria pixten da ta ernal-eguna ez danetan sukarra jetxitakoan, argi orlegia pixtu.*

*Bularreko min-biziaren azterketan arkitutako era da.*

Margaret F. YOUNG'ek

IZAN diteken erarik xaloena dalako, laster erabat zabalduko ernal-egunak jakiteko era berri au.

Emakumea ernal-egunetan dagoala ez jakiteko era au, argi gorri edo orlegi bidez adierazten dalako, bular-eusle-semaforoa izena eman dezaiokegu.

Emakumezkoentzat batere kalterik ez danez, arazo zail au zuzentzeko bide ona ta berezkoa izan diteke.

Era berri au asmatu duana, eskosar Hugh Simpson sendagillea da ta orrundik azterketa lanean zebillenez, arrituta dago batera ta batera ain azkar zabaldu dalako. Simpson sendagilleak dionez, bular-eusle-semaforoa, bularreko min-biziaz aztertzen nabarmendu arazteko bide batetik sortua da. Gero ikusi danez, ernaiketa zuzentzeko ere bide egokia da.

Simpson'en asmamena, aspalditik ezaguna dan gertakizun batean oñarritua dago: arraultztokitik arrautza jeixten danean, emakumearen sukarra igo egiten da, gero bat-batean sukar ori jeixteko.

«Nere buruari egiten nion galdera auxe izan zan —dion Simpson jaunak—: sukarra sukar-neurtzallearekin termometroarekin artzeko ordez, zergatik artu ez bular-eusleau ezkutatu diteken konputadora tiki baten bidez.

Eta sukar ikuste ori nola errezta? Orrelaxe bururatu zitzaidan argi kontu au: argi gorria sukarra igotzen danean (ernal-egunak diranetan) eta orlegia sukarra jatxi-




Era ontakoa da bular-eusle berezi au.

takoan (ernal-egunak ez diranetan).

Jakin-bideak luzeak eta zallak izan oi dira ta bere asmoak aurrera eramaten zegon unean, nun ikusten duan izparringietan dana argi ta garbi adierazita. Egia zanez, ezin ezeztu izan zuan izparringietan azaldutako berria, baña gauzak bere lekuan utzi nairik ala zion:

«Bular-eusle-semaforoa aurrera eraman baño len, saio geiago egin bear ditut eta luze joko du. Ni, jakiña, nere saioetan aurrera joango naiz eta nere asmorik biziena, seme-alaben bat izan nai ta eziñean arkitzen diran emakumeeri laguntzeko, sukarra nabarmentzeko era berri au obeagotzen alegindùko naiz; antzu diran emakumeentzat laguntza aundia izango da ernal-egunak zeintzuk diran ziur jakitea. Era berri au ona izango balitz, aurrerik izan nai ez dutenentzat ere erabilli diteke».

Ikusten danez, bi asmotarako erabilli diteken tresna da ta norberak une bakoitzean ondoen datorkionerako izango du.

Simpson sendagilleak bere laguntzalleekin batera aurrera jarraituko du bularreko min-bizia sortu bezin zoriz agertu arazte lanetan. Izan ere, ernal egunetan gerta oi dan bezela, min-bizia sortzerakoan agertzen diran zelulakin batera, sukarra igo egiten da ta

...larrari itsatsita bezela dagon ...-ondoen darama komputa...ra mikak, sukarra sortu ala argi ...ma pintan, gaitza asi dala ...onuko du ta sendagiñekin zenbat eta lenago asi, orduan da azkarrago ta errezago sendatzen min-bizia.

*OTARRI'k euskeratua*

**Euskaldun beti!**

Euskaldun jaio nintzan,
euskalduna azi;
euskera utsik amak
eustan irakatsi.
Euskera maite-maite,
zabiltz nigaz beti.
Euskera il ezkero...
ez dot gura bizi!

F. ARRESE-BEITIA

**Bero, bero!**

Muga-etxe edo aduanako begiraleek susmurra zuten: bere emazte ta ...alabatxoarekin zan jaun arek ba-zeramala zerbait ezkutua berebillean.

Tresko guztiak zeatz-meatz arakatzen ari dira, baiñan ez dute oraindik ...ezer ere aurkitu.

Ortan, atzeko eserlekua altxatzera dijoazenean, or asten da nexka txa-...ka ta jauzika:

– Bero, bero...!